2015eko azaroaren 5a

VIII Zenbakia

Gorbeialde ALDIZKARIA




# Gorbeialde Aldizkaria




## LEMOAKO AZOKA

**XVI. Nekazaritzako Elikagaien Azoka. Azaroaren 8an**

Azkenengo urteetan ohikoa izaten dan bezala, datorren azaroaren 8an, domekan, Lemoako Nekazaritzako Elikagaien Azoka ospatuko da.

BBK-ak ipinitako 20 postuekaz, azoka bat egingo da Udalak bultzatua eta Gorbeialdek antolatua, eskualdeko 13 ekoizle eta inguruko beste 7 ekoizle parte-hartuko dabe.

Gorbeialdetik salmenta-bideak zabaltzeko nahi gurean gagoz, horretarako ospatzen diran azokei eta merkatuei garrantzi handia emoten deutsegu, bertan ekoizleak zuzenean saltzen dabez euren produktoak, bertan luzaroko komertzial-loturak sortzeko leku egokia izanik.

Ekitaldi hauen antolaketa hobeto egin daitekeela uste dogu, egiten diren ikuskapenetan aldaketa batzuk egin behar direla esaten deuskue. Entitate antolatzaile aldetik borondatea behar da errezak jartzeko diren aldaketa hauek egiteko.

Hurbiltasuna, bertako produktoreei lehentasuna emanez, eta eskaintza zabala, eskualdean ez dauzan produktoakaz osatuz; ekitaldien antolaketari buruzko araudiak betetzeaz batera, honeik dira Gorbeialde antolatzen dauzan azoka eta merkatuen nortasun-ezaugarriak.

## *FERIA EN LEMOA*

***XVI Feria Agroalimentaria en Lemoa. 8 de noviembre***

*Como viene siendo habitual los últimos años el próximo domingo día 8 se celebrará la Feria Agroalimentaria de Lemona.*

*Promovida por el Ayuntamiento, organizado por Gorbeialde y con 20 puestos instalados por la BBK se celebrará una feria en la que asistirán trece productores de la comarca y otros siete productores de zonas limítrofes.*

*Desde Gorbeialde estamos poniendo un interés especial en abrir canales de venta a los productores dando una gran importancia a la organización de las ferias y mercados como puntos directos de venta y lugares en los que se puede establecer vínculos comerciales que se prolonguen en el tiempo.*

*Creemos que la organización de estos eventos se puede mejorar, hay aspectos en los que las inspecciones que se realizan nos sugieren cambios, fácilmente implantables pero que requieren de la voluntad de resolverlos por parte de las entidades organizadoras.*

*Cercanía, dando prioridad a los productores propios, y variedad, complementando la oferta con productos que no existen en la comarca, además del cumplimiento de las normativas referentes a la organización de estos eventos son las señas que identifican las ferias y mercados organizados por Gorbeialde.*

*www.gorbeialdea.com*

**AURKIBIDEA VIII:**

- **Lemoako Azoka**
- **Ipiñaburuko gazta irabazle**
- **Arratiako Altxorra**
- **50 urte Arratiako Tranbiarik gabe**
- **Basquemountains**

# Ordiziako lehiaketan Ipiñaburuko gazta irabazle

Jon Etxebarria eta Puy Arrieta-ren Ipiñaburu gaztaitegiak irabazi dau Ordiziako Idiazabal gazta lehiaketan.

Sari hau bigarren aldiz irabazi dau Ipiñaburuko gaztaitegiak eta bai beraien eta eskualdeko gazta produktoreak azkenengo urteotan egiten daben lan onaren aitorpena izan da sari hau.

Zorionak Puy eta Jon!!!!



# *La quesería Ipiñaburu de Zeanuri gana el concurso de Ordizia*

*La quesería Ipiñaburu de Zeanuri propiedad de Jon Etxebarria y Puy Arrieta se proclamó campeona del concurso de quesos de Ordizia.*

*Es la segunda vez que esta quesería se alza con el galardón y es un reconocimiento al buen trabajo que se realiza en Ipiñaburu, y al que durante los últimos años vienen realizando los productores de queso de la comarca.*

# *Arratiako Altxorra* jokoaren aurkezpena Zeanurin

Azaroaren 11n eguaztenean, arrastiko 19:00etan aurkeztuko da *Arratiako Altxorra* jokoa Zeanuriko Udaleko batzar aretoan.

Jolas hau ez da antzarra jokoa, baina badauka antza; ez da tribiala be, baina badauka antza. Bertokoa izan ala kanpotik etorri, umea izan edo jubilatuta egon, Arratia barru-barrutik ezagutzeko aukerea emoten dau: mendiak, herriak, ermitak, musika, kirola, literatura… erakusten eta irakasten dauz *Arratiako Altxorra* deritxon jolas honek.

Lehenengo edizinoa 600 jokokoa izango da eta bakotxean 300 galdera-erantzunetik gora batzen dira; dadoakaz jolasten da eta Arratiako 12 txartelak eskuratu behar dira jokoa irabazteko.

Egileak asko izan dira, euren artean aitamen berezia merezi dabe Zeanuriko gazte talde batek eta Manu Etxebarria zeberioztarrak. Diseinu lanak Javier Lacalle *Laka* artista zornotzarrak egin ditu.

*Arratiako Altxorra*ren edizinoa eta zabalkundea posible izan da honako erakundeen laguntzari esker: Arratiako Udalen Mankomunidadea, eta Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa eta Zeanuriko Udalak.

Azaroaren 11n, Zeanurin egingo dan aurkezpen ekitaldian jokoaren nondik norakoak plazaratzeaz gain, Arratian bizi diran altxorren adierazpen ezbardinak ikusteko eta gozatzeko aukerea be izango da: bertsoa, txistua, ipuina…

Jokoa erakunde laguntzaileen bitartez eta Arratiako parrokietan zabalduko da. Herrietako dendetan be erosteko aukerea izango da.




*Arratiako Altxorrak Arratia barru-barrutik ezagutzeko aukerea emoten dau*





# 50 URTE ARRATIAKO TRANBIARIK GABE

**Erakusketa ibiltaria Bilbon, Bizkaiko Foru Liburutegian egongo da ikusgai**

Ehun urtetik gora igaro dira, gehienbat Arratiako Tranbia izenaz ezagutzen den Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa jaio zenetik, eta 2014ko azaroaren 30ean bere heriotzaren 50. urteurrena bete zen.

Tranbia hura ezinbesteko erreferentea izan zen erabili behar izaten zuten milaka lagunentzat, bera zelako lantegietara zein Bilboko portura lanean joateko, zein baserriko eta zenbait fabrikatako produktuak gora eta behera eramateko, zein mendizaleak Gorbeiara hurreratzeko garraiobide bakarra. Bilbon, Arriaga Antzokiko plazatik abiatzen zen Lemoara zuzentzeko, eta hemen linea bitan adarkatzen zen: Durangorantz edo Zeanurirantz. Guztira, tranbiabideak 49,21 kilometrokoa luzera zuen.

Urteak aurrera joan ahala eztanda-motorea, gasolina eta petrolioaren beste deribatu batzuen garaia iritsi zen, automobil pribatuaren sozializazioan oinarritutako gaur egungo zibilizazioren hain zuzen. Eta orduan, 1964ko azaroaren 30ean, Arratiako tranbiaren heriotza gertatu zen.

*"Tranbia hura ezinbesteko erreferentea izan zen erabili behar izaten zuten milaka lagunentzat"*

Bere heriotzaren 50. urteurrena aitzakiatzat hartuz, eta garraiobide zahar haren gorabeherak ezagutzera emateko asmoz, Zertu Kultur Elkarteak, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesaz, Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa. 50 urte Tranbia barik erakusketa ibiltaria antolatu du. 150 argazkik, zinema irudiek (Julian Elejoste, Felipe Manterola eta NODOren grabazioak), prentsa albisteek, grafikoek, tranbiarekin zerikusia duten zenbait objektu —txartelak, uniformeak, dokumentuak...— eta tranbien maketek osatzen dute erakusketa.




Erakusketa ibiltari honek Zeanurin hasi zuen bere ibilbidea, eta Igorren, Lemoan, Galdakaon, Areatzan eta Azpeitiko Burnibidearen Euskal Museoan izan ditu "geltokiak", eta Bilbon, Bizkaiko Foru Liburutegian amaituko du bere bidaia; bertan egongo da ikusgai urritik abendura.

Jon Urutxurtu

# *50 AÑOS SIN EL TRANVÍA DE ARRATIA*

*La exposición se podrá ver la Biblioteca Foral hasta final del año*

*El 30 de noviembre de 2014 se cumplió el quincuagésimo aniversario de la desaparición del Tranvía Eléctrico de Bilbao a Durango y Arratia, popularmente conocido como el Tranvía de Arratia. Fue un medio de transporte que acercaba tanto a los trabajadores del valle a las fábricas y a los muelles del puerto de Bilbao, como a los montañeros al Gorbeia, a la vez que transportaba productos agropecuarios de los caseríos del Valle de Arratia y la producción de numerosas fábricas situadas a lo largo de su recorrido. En su primera época iniciaba su recorrido en Bilbao frente al Teatro Arriaga, para dirigirse a Lemoa, donde la línea se bifurcaba hacia Durango o hacia Zeanuri.*

*Con el paso de los años, vino la época de los motores de explosión, la gasolina y otros derivados del petróleo, en definitiva, la actual civilización basada en la socialización del coche privado. Y entonces, el 30 de noviembre de 1964, el Tranvía de Arratia desapareció.*

*Coincidiendo con ese aniversario y con la finalidad de dar a conocer la historia de aquel viejo medio de transporte, la asociación Zertu Kultur Elkartea, ha organizado con el patrocinio de la Diputación Foral de Bizkaia la exposición itinerante titulada El Tranvía Eléctrico de Bilbao a Durango y Arratia. 50 años sin el Tranvía de Arratia. La muestra se compone de unas 150 fotografías, gráficos, noticias de prensa, imágenes de cine (grabaciones de Julián Elejoste, Felipe Manterola y del NODO), diversos objetos (billetes, uniformes de trabajadores, documentos...) y maquetas de tranvías.*

*Esta exposición itinerante inició su viaje el 30 de enero en Zeanuri, y ha realizado "paradas" en Igorre, en el Museo Vasco del Ferrocarril de Azpeitia, en Lemoa, Galdakao y Areatza y finalizará su recorrido en Bilbao, en Biblioteca Foral de Bizkaia, donde permanecerá desde finales del mes de octubre a finales de diciembre.*

*Jon Urutxurtu*



Arratiko tranbia

# BASQUEMOUNTAINS

Pasadan urriaren 29a eguena, Bilbon, Arratia-Nerbioi , Enkarterrialde eta Durangaldea eskualdeak eta bere helmuga turistikoak Gorbeia, Enkarterri eta Urkiola osatzen duten **"Basquemountains®"** Bizkaiako marka turistikoa aurkeztu zen mendi turismoa sustatzeko. Aurkezpenean Bizkaiko Foru Aldundiko Turismo Zuzendaria; Asier Alea, Durangoko alkatea; Aitziber Irigoras, Enkarturreko presidentea; Imanol Zuloaga eta Gorbeialdeko LGAko presidentea; Txomin Ozerinjauregi izan ziren besteak beste.

Zentzu honetan, **Basquemountains®** urria eta azaroaren bitartean **"Hemen dago zure selfie-rik onena "** leloaren barnean marketing kanpaina zabalduko du. Honen helburuak, alde batetik, 2015 eta 2016an estatuko (Madril, Katalunia eta Andaluzia) turistak erakartzea da eta bestetik Bizkaiko mendiak ezaguraraztea da. Azken finean, lortu nahi dena turistaren gastua handitzea, Basquemountains@ lurraldearen dispertzioa lortzea eta helburu turistikoen goidenboraldiak areagotzea da. Orobat, honako ekimena markaren ikuspena eta ezaguera handitu nahi du, hala nola, barrualdeko Euskadi berdea eta Basquemountains® helmuga turistikoa edozein turistarentzat egokia den natura eta mendia helmuga bezala kokatzearen xedea du.

*El jueves 29 de octubre se presentó en Bilbao la marca turística de Bizkaia **"Basquemountains®"** integrada por las comarcas de Arratia-Nervión, Encartaciones y Durangalde que une los destinos Urkiola, Gorbeia y Enkarterri para promocionar el turismo de montaña. La presentación contó con la asistencia del Director de Turismo de la Diputación Foral de Bizkaia; Asier Alea, la alcaldesa de Durango; Aitziber Irigoras, el presidente de Enkartur; Imanol Zuloaga y el presidente de la ADR Gorbeialde Txomin Ozerinjauregi.*

*En este sentido, **Basquemountains®** lanzará una campaña bajo el eslogan **"Tu mejor selfie está aquí"** entre los meses de octubre y noviembre. Todo ello con el objetivo de atraer turistas nacionales (Madrid, Cataluña y Andalucía) en 2015 y 2016, para que conozcan el encanto de las montañas de Bizkaia y por ende, incrementar el gasto de cada turista, así como conseguir la dispersión geográfica del viajero/a dentro del territorio Basquemountains® y desestacionalizar los destinos. Asimismo, esta iniciativa permitirá también aumentar la visibilidad y el conocimiento de la marca, dar a conocer el interior verde de Euskadi y posicionar Basquemountains como un destino de naturaleza y montaña accesibles para cualquier turista.*







**Gorbeialde ALDIZKARIA**

*GORBEIALDE LANDA GARAPENERAKO ALKARTEA*
*Askatasun, 34-A*
*48143 -AREATZA-*

*Telefonoa: 94 631 55 25 Faxa: 94 631 71 01*
*gorbeialde@gorbeialdea.com*

www.gorbeialdea.com